Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco - Sarrera/Entrada - 2019/02/19 - 17:46 - Zk./Núm.: 967



NIK, MARIA ESPERANZA ASTIAZARAN ECHEVARRIAK, Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren idazkariak

**EGIAZTATZEN DUT**

Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak, 2019ko otsailaren 14an eginiko bilkurari dagokion aktak ondorengo akordioak jasotzen ditu:

1. Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari 2018ko ekitaldian egin beharreko Ekarpen likidazioa.
2. 2018. ekitaldirako Egokitzapenerako Funts Orokorraren likidazioa.
3. Ezohiko ekarpena.
4. Proiektu Estrategikoetarako Funtsa.
5. Ezohiko Fondoa

Hitzarmen horien hitzez hitzezko testuak jarraian agertzen direnak dira:

1. Foru Aldundiek Eusko Jaurlaritzari 2018ko ekitaldian egin beharreko Ekarpen likidazioa.

**1. Onartzea Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen karga orokorrei finantzatzeko Foru aldundiek 2018 ekitaldirako egin beharreko ekarpenen likidazioa. Ekarpenok hauek izango dira:**

MARIA ESPERANZA ASTIAZARAN ECHEVARRIA, Secretaria del Consejo Vasco de Finanzas Públicas

**CERTIFICO**

Que en el Acta correspondiente a la reunión del Consejo Vasco de Finanzas Públicas celebrada el 14 de febrero de 2019 constan los siguientes acuerdos:

1. Liquidación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales para el ejercicio 2018.
2. Liquidación del Fondo General de Ajuste para el ejercicio 2018.
3. Contribución extraordinaria.
4. Fondo de Proyectos Estratégicos.
5. Fondo extraordinario

Los textos literales de los mencionados acuerdos son los que siguen:

1. Liquidación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales para el ejercicio 2018.

**1. Aprobar la liquidación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la financiación de las cargas de las Instituciones Comunes para el ejercicio de 2018, que serán las siguientes:**

| | € |
|---|---|
| **EKARPEN OROKORRA / APORTACIÓN GENERAL** | **9.366.098.044** |
| **EKARPEN BEREZIAK / APORTACIONES ESPECÍFICAS** | **631.329.132** |
| ▪ ERTZAINTZA / POLICÍA AUTÓNOMA | 38.249.680 |
| ▪ FINANTZAKETA BERRIA / NUEVA FINANCIACIÓN | 196.082.530 |
| ▪ ESKUMEN BERRIAK / NUEVAS COMPETENCIAS | 396.996.922 |
| **EKARPENAK GUZTIRA / TOTAL APORTACIONES** | **9.997.427.176** |

**2. Aipaturiko kitapenaren zenbatekoa 2019ko otsailaren lehenengo hamabostaldian gauzatuko da.**

**2. El importe de dicha liquidación se practicará dentro de la primera quincena del mes de febrero de 2019.**

2. 2018. ekitaldirako Egokitzapenerako Funts Orokorraren likidazioa.

2. Liquidación del Fondo General de Ajuste para el ejercicio 2018.

**1. Egokitzapenerako Funts Orokorraren dagokionez, 2018. urterako 133.724.986 euroko likidazioa onartzea.**

**1. Aprobar la liquidación del Fondo General de Ajuste para 2018 por un importe de 133.724.986 euros.**

**Funts honen %70,04eko finantzaketa Eusko Jaurlaritzari egokituko zaio eta gainontzekoa, %29,96, alegia, foru aldundiei.**

**La financiación de este Fondo corresponderá en un 70,04% al Gobierno Vasco y el resto, 29,96%, a las Diputaciones Forales.**

**Erakunde bakoitzaren zenbatekoak hurrengoak dira:**

**Cada institución participará con los siguientes importes:**

| | | € |
|---|---|---|
| **Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco** | **70,04** | **93.660.980** |
| **Foru Aldundiak / Diputaciones Forales** | **29,96** | **40.064.006** |
| **Araba / Álava** | | 6.586.522 |
| **Bizkaia** | | 20.180.240 |
| **Gipuzkoa** | | 13.297.244 |
| **GUZTIRA / TOTAL** | | **133.724.986** |

**Funts hori Araba eta Gipuzkoa Lurralde Historikoen artean banatuko da eta hurrenez hurren horiei 39.065.138 eta 94.659.848 euroko kopuruak dagozkie.**

**Dicho Fondo se distribuirá entre los Territorios Históricos de Alava y Gipuzkoa, a los que les corresponden 39.065.138 y 94.659.848 euros respectivamente.**

**2.Aipaturiko kitapenaren zenbatekoa 2019ko otsailaren lehenengo hamabostaldian gauzatuko da.**

**2. El importe de dicha liquidación se practicará dentro de la primera quincena del mes de febrero de 2019.**

3 .Ezohiko konpentsazioa

3. Compensación extraordinaria

**2018ko ekitaldiaren itxierako emaitzak ikusirik, Eusko Jaurlaritzak 2.827.070,50 eurokoa eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2.827.070,50 euroko ekarpenak egingo dute Araba eta Gipuzkoako foru aldundien artean banatzeko, 1.613.112 eta 4.041.029 euro kopuruengatik, hurrenez hurren.**

**A la vista de los resultados finales al cierre del ejercicio 2018, el Gobierno Vasco aportará 2.827.070,50 euros y la Diputación Foral de Bizkaia 2.827.070,50 euros para su distribución entre las Diputaciones Forales de Alava y Gipuzkoa, por importes de 1.613.112 y 4.041.029 euros respectivamente.**

4. Proiektu Estrategikoetarako Funtsa.

**1. Proiektu Estrategikoen Funtsaren kargurako finantza partaidetza publikorako konpromiso irmoen ondorioz 2018. ekitaldian aitortu den kostua 0 eurokoa da eta 2018. urtean inbertsio hauek burutu ahal izateko SOCADEk izandako finantza sarreren eta kudeaketa gastuen arteko aldea 473.303,20 euroko saldo negatiboa dugu.**

**Bestalde, 2018. ekitaldian SOCADE S.A. delakoaren aldeko itzulketak 1.196.630,39 eurokoak izan dira eta ez-betetze espedienteen berreskurapenak direla-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusian sartutako kopurua 1.158.422,10 eurokoa izan da.**

**2. Behin, Inbertsio guztizko kopuruari, kudeaketa gastuak, finantza emaitzak, eta itzulketak, ez-betetze espedienteena salbu, gehiturik, 2000-2018 aldian Proiektu Estrategikoen Funtsaren kargura aitortutako kostua 160.418.657,75 eurokoa da. Kontuan hartuta eginiko ekarpen garbiak 197.071.243,89 eurokoak direla, 2018ko abenduaren 31n emaitza 36.652.586,14 kopurukoa da, dagoeneko bereganatu diren konpromisoei eta kudeaketa gastuei aurre egiteko helburua duena.**

4. Fondo de Proyectos Estratégicos.

**1. El coste reconocido en el ejercicio 2018 como consecuencia de los compromisos firmes de intervención financiera pública con cargo al Fondo de Proyectos Estratégicos asciende a 0 euros y la diferencia entre los ingresos financieros y gastos de gestión en que ha incurrido SOCADE para llevar a cabo estas inversiones en 2018 arroja un saldo negativo de 473.303,20 euros.**

**Por otra parte, en el ejercicio 2018 los retornos a favor de SOCADE S.A. han ascendido a 1.196.630,39 euros y las recuperaciones de los expedientes de incumplimiento, que han sido ingresadas en la Tesorería General del País Vasco, se han situado en 1.158.422,10 euros.**

**2. El coste reconocido en el periodo 2000-2018 con cargo al Fondo de Proyectos Estratégicos, una vez incorporado al importe del total de inversiones los gastos de gestión, los ingresos procedentes de resultados financieros y los retornos, excluidas las recuperaciones por incumplimiento, es de 160.418.657,75 euros. Teniendo en cuenta que las aportaciones netas realizadas ascienden a 197.071.243,89 euros, a 31 de diciembre de 2018 resulta un importe de 36.652.586,14 euros destinados a hacer frente al desembolso de los compromisos ya adquiridos, y a los gastos de gestión.**

5. Ezohiko Fondoa

**Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluak 2019-2021 aldirako baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko metodologia ekitaldi honetan onartzeko**

5. Fondo extraordinario

**Manteniendo el compromiso por parte del Consejo Vasco de Finanzas Públicas de aprobar la Metodología de Distribución de Recursos y de Determinación de las Aportaciones de las Diputaciones Forales a la Financiación de los Presupuestos de la Comunidad Autónoma del País Vasco**

konpromisoa mantenduz, bidezkoa da honako:

**AKORDIOA**

**1. Ezohiko Funts bat eratzea. Funts hori aktibatu egingo da foru-aldundi bakoitzerako EAEko diru-bilketa osoko partaidetza erlatiboa, behin 2019 ekitaldiko likidazioan Egokitzapenerako Funts Orokorrari egindako kontribuzio garbia kenduta, bere koefiziente horizontalaren %99ra iristen ez denean.**

**2. Ezohiko Funtsaren zenbatekoa aipatutako KHren %99 horretara iristeko beharrezko zenbatekoa izango da eta 2019 ekitaldiko itxieran banatu beharreko baliabideen %0,45 izango du muga.**

**3. Erakunde komunen kontribuzioa Ezohiko Funtsaren %50era iritsiko da. Beste %50a, beren koefiziente horizontalen arabera, foru-aldundiei dagokie.**

**4. Baldin eta aurreko puntua aplikatzeagatik Ezohiko Funtsaren onuraduna ez den foru aldundi baten kontribuzioak bere benetako diru-bilketa eta Euskadiren diru-bilketa osoari bere koefiziente horizontalaren % 99a aplikatzearen emaitzaren arteko diferentziaren zenbatekoa gainditzen badu, haren kontribuzioa aipatutako aldearen zenbatekoan finkatuko da.**

**Ezohiko Funtsaren onuraduna ez den foru aldundia aurreko kasuan ez badago, gainontzeko zenbatekoa bere gain hartuko du hiru foru aldundien kontribuzioa orotara bete arte.**

**5. 2019ko ekitaldiaren itxieran bi lurralde historikoren diru-bilketa**

aplicable al período 2019-2021 durante el presente ejercicio, procede el siguiente:

**ACUERDO**

**1. Constituir un Fondo Extraordinario que se activará cuando la participación relativa en la recaudación total del País Vasco para cada diputación foral, una vez deducida su contribución neta al Fondo General de Ajuste liquidado del ejercicio no alcance el 99% de su coeficiente horizontal.**

**2. El importe del Fondo Extraordinario será aquel que sea necesario para alcanzar dicho 99% del CH, con el límite del 0,45% de los recursos a distribuir en el cierre del ejercicio.**

**3. La contribución de las instituciones comunes alcanzará el 50% del Fondo Extraordinario. El restante 50% corresponderá a las diputaciones forales en función de sus coeficientes horizontales.**

**4. En el supuesto de que por aplicación del punto anterior la contribución que resulte para alguna diputación no beneficiaria del Fondo Extraordinario supere el importe de la diferencia entre su recaudación real y el resultado de aplicar el 99% de su coeficiente horizontal a la recaudación total del País Vasco, su contribución quedará fijada en el importe de dicha diferencia.**

**La diputación foral que no siendo beneficiaria del Fondo Extraordinario no se encuentre en este supuesto asumirá el importe restante hasta completar la contribución del conjunto de las tres diputaciones forales.**

**5. En el supuesto de que, situándose la recaudación relativa de dos**

**bakoitzaren koefiziente horizontalaren % 99tik beherakoa izanik, Ezohiko Funtsaren zenbateko osoa nahikoa ez bada bi lurraldeok koefiziente horizontalaren %99a lor dezaten, Ezohiko Funtsaren banaketa, aipatutako lurraldeon kontribuzioa kenduta, esandako % 99a lortzeko horietako bakoitzak behar duen zenbatekoarekiko era proportzionalean egingo da.**

**diputaciones forales por debajo del 99% de su respectivo coeficiente horizontal al cierre del ejercicio, la cuantía total del Fondo Extraordinario resulte insuficiente para que ambas alcancen el 99% del coeficiente horizontal, la distribución del Fondo Extraordinario, excluida la contribución de dichas diputaciones forales, se realizará de forma proporcional al importe que cada una de ellas necesite para alcanzar dicho 99%.**

**6. Ezohiko Funts hori kobratzeko baldintza izango da 2014ko otsailaren 13an egindako bileran FPEK-k onartutako MIT/10aren osagarria den tributu-informazioa aurkeztea; Ezohiko Funtsan parte hartzen duten erakundeek adostutako epe eta baldintzetan.**

**6. La aplicación de este Fondo Extraordinario quedará condicionada a la presentación de información tributaria, adicional al MIT/10 aprobado por el CVFP en sesión celebrada el 13 de febrero de 2014, en los plazos y términos que sean acordados por las instituciones.**

**7. Ezohiko Funtsa 2019 ekitaldiko likidazioan aplikatuko da. Aipatutako likidazioan eragina duen baliabideen banaketarako eta ekarpenak zehazteko metodologia berri bat onartuz gero, akordio hau balio gabe geratuko da.**

**7. El Fondo Extraordinario será de aplicación en la liquidación de cada ejercicio hasta la entrada en vigor de la nueva metodología de distribución de recursos y de determinación de aportaciones.**

Eta agerian gera dadin eta ondorioak izan ditzan, egiaztagiri hau ematen dut Vitoria-Gasteizen, bi mila eta hemeretziko otsailaren 19an, eta adierazten dut transkribaturiko akordioak jasotzen dituen akta Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren oniritzian jarri beharko dela kontseilu horren hurrengo bileran.

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 19 de febrero de dos mil diecinueve, haciendo constar que el Acta donde figuran los Acuerdos transcritos será sometida a la aprobación del Consejo Vasco de Finanzas Públicas en su próxima reunión.

Maria Esperanza Astiazaran Echevarria
Herri-Dirubideen Euskal Kontseiluaren idazkaria
Secretaria del Consejo Vasco de Finanzas Públicas